kanpaina
aldizkaria

ITAKA ESCOLAPIOS

**2016-17**
**Elkartasun**
**Kanpaina**

# KAMDA ESPEDIZIOA
## HEZI-IRAGARRI-ALDARAZI

La campaña de solidaridad llega en un momento muy especial para las Escuelas Pías y para Itaka–Escolapios: celebramos el año jubilar escolapio con el que conmemoramos los 400 años de historia de la congregación y los 250 de la canonización de su fundador José de Calasanz. Es un año de celebración, de contemplar el camino recorrido desde el recuerdo agradecido por tan larga y fructífera trayectoria. Y es también una ocasión para mirar al frente, hacia el ilusionante futuro que aparece ante las Escuelas Pías y hacia los desafíos de la misión escolapia en el mundo actual y venidero.

Hori dela eta, urte santu honetarako leloa ekintzarako dei hirukoitza izango da: HEZI, IRAGARRI, ALDARAZI. Hiru aditz horietan, misio eskolapioaren muina dago laburbilduta, orain dela lau mende Calasanzek marraztu zuen moduan eta gaur arte igorri diguten bezala. Gainera, beti-beti nabarmentzen da Calasanzen ezaugarri bereizgarrietakoa izanda Itaka-Eskolapioak Fundazioak bere proiektu guztietan ezarri nahi duen zerbait ere bai: misioaren hiru dimentsio handiok lotzea –hezkuntza, ebanjelizazioa eta gizartearen eraldaketa– eta, ikuspegi integraletik, gainerakoak bakoitzaren bitartez sustatzea.

Siendo este el contexto del curso, la nueva campaña de solidaridad de Itaka-Escolapios es una magnífica oportunidad para celebrar y comprometerse con lo que supone el año jubilar. Primero, porque orientar nuestro esfuerzo solidario hacia la misión escolapia en el mundo empobrecido es una manera de ser hoy fieles a Calasanz y consecuentes con aquello a lo que él entregó su vida, tras escuchar la llamada de los niños más pobres. Y en segundo lugar, porque hacerlo juntos, en una campaña impulsada desde varios países a través de la red Itaka-Escolapios, nos ayuda a sentirnos más corresponsables, más parte de las Escuelas Pías y más comprometidos con su futuro.

El proyecto al que va dirigida la campaña de solidaridad de este curso representa muy bien las claves que acabamos de mencionar. En India, las Escuelas Pías son muy jóvenes (datan de 1994, casi ayer en comparación con los cuatro siglos de historia), con mucho futuro, pero a la vez con grandes retos a superar. Y dentro de India, la de Kamda, una pequeña localidad al nordeste del país de población *adivasi*, es una presencia especialmente necesitada de apoyo, donde la pobreza y la falta de oportunidades educativas se dejan ver con mayor rotundidad.

La escuela escolapia de Kamda está siendo ya una respuesta a esa realidad, pero las instalaciones y los medios actuales no son suficientes para atender como se merecen a los niños, niñas y jóvenes del entorno, procedentes de familias pobres. Por eso es necesaria una fuerte inversión para mejorar las condiciones de esta escuela y, a ser posible, construir unas nuevas instalaciones para poder dar una mayor y mejor respuesta a las necesidades educativas del lugar.

Os invitamos a participar e implicaros con ilusión en esta campaña de solidaridad, sintiendo que con ello contribuimos a hacer realidad, tanto en Kamda como en nuestro entorno más cercano, la llamada que las Escuelas Pías nos hacen este año a EDUCAR, ANUNCIAR y TRANSFORMAR.



# KOKAPENA

## La campaña de solidaridad de este curso nos traslada hasta la India, un país tan grande, diverso y poblado que parece un continente entero.

Escanea el código y accede al lugar exacto donde está la escuela.

ESKERRONA

### Eskerrik asko ahaleginagatik

Queremos aprovechar la oportunidad que nos brinda la presente revista de campaña para agradecer al alumnado, profesores y profesoras y a las familias el esfuerzo realizado para que la red de solidaridad de Itaka-Escolapios haya podido enviar a Indonesia un total de 200.758,81 € para la construcción de un internado en la ciudad de Atambúa y reservar 24.000 € más para su equipamiento, una vez finalicen las obras en el mes de marzo.

Indiako Errepublikak (hindiz, भारत गणराज्य ) 1.240 milioi biztanle baino gehiago dituenez, planetako bizilagun gehien dituen bigarren herrialdea da Txinaren ostean. Bere azalera kontuan hartuta, zazpigarren herrialde handiena da, gainera.

Globalizazioak eta komunikabideek igorritako irudia Bollywood koloretsuarena eta bertako dantzena bada ere, herrialdeko iparraldeko estatuetako errealitatea beste era batekoa da zeharo.

El proyecto que conoceremos durante esta campaña se sitúa en el estado de Jharkhand, al noreste del país. Allí, en un extremo del parque natural "Saranda Singhbum Range" está la escuela escolapia de Kamda. Es una zona selvática con grandes extensiones boscosas y un gran número de especies animales salvajes, sobre todo elefantes y algunos leopardos.

En Kamda viven aproximadamente unas 10.000 personas dispersas en pequeños barrios rurales llamados *tolis* en los que hay entre 5 y 10 casas. La mayoría de los hogares están construidas con barro y chapas, sin agua corriente, váteres ni electricidad.









# MUNDARRAK

**La población de Kamda pertenece al grupo de los *munda*, una de las muchas tribus índicas, llamadas genéricamente *adivasis*. Sólo en el Estado de Jharkhand hay más de 32 grupos étnicos diferentes.**

Etxe inguruko baratze txikietako laborantza dute bizibide, eta, horrez gain, baso hurbiletara ere badoaz ehizan. Ureztaketa-sistemarik ez dutenez, urtean uzta bat baino ez dute biltzen. Euren diru-sarreren osagarri, egurra, harrapatutako animaliak edo baratzeetako produktuen zati bat saltzen dituzte bideetan.

Historiari begira, mundarrak munduaren gaineratikotik aparte bizi izan dira. Kanpokoaren beldur direnez, hainbat eta hainbat tradizio eta ohitura gorde ahal izan dituzte, baita euren hizkuntza bera ere, mundaria, alegia. Dena dela, isolamendu horren ondorioz, ez dute aurrerakuntza asko lortzerik. Osasuna horren adierazgarri ezin hobea da. Haien lurretan, ez dago gaixotasun oinarrizkoenak eta bakunenak atenditzeko zentro medikorik. Malaria nonahi agertzen da inguruan, eta are larriagoa da, ez dagoelako inolako neurririk eltxo kutsatzaileen ugalketa edo hedapena eragozteko. Herrialde osoko inguru txiroenetakoa da.

En la zona apenas hay escuelas, y las existentes están en muy malas condiciones, las distancias entre ellas son muy grandes y muchos estudiantes tienen que trasladarse varios kilómetros. Por eso, aunque los caminos de la selva están en mal estado muchos usan la bicicleta como medio de transporte. A pesar de ello factores como la distancia a la escuela, la falta de calidad en las mismas o la pobreza, hacen que la tasa de fracaso escolar y el abandono precoz de los estudios sea especialmente alto. Estos factores influyen principalmente entre las familias de muy bajos recursos puesto que menores en las muchas ocasiones se ven abocados a buscar trabajos sin cualificación para ayudar o en algunos casos mantener las familias.













**AURREKONTUA**

"Kamda Espedizioa: hezi, iragarri, aldarazi" honako herrialde hauetako 50 zentro eskolapiotan baino gehiagotan garatuko da: Bolivia, Brasil, Kamerun, Espainia, Gabon, Ginea, India, Indonesia eta Venezuela.

La campaña de solidaridad permitirá mantener abierta la Calasanz Ashram School, atendiendo a los y las menores de uno de los lugares más pobres de la India. Por medio de la campaña necesitamos cubrir al menos 220.000 € para además poder mejorar la calidad educativa mediante: la acometida de electricidad, mejoras y reparaciones en las aulas, la formación y capacitación del profesorado ola construcción de un nuevo pozo de agua que evite la suspensión de las clases en la época seca, entre otras intervenciones.

Zailtasunez betetako ingurunean egunero-egunero eskola doazenen ilusioak gero eta hobea eta duinagoa den eskolarekin amets egiten jarraitzeko adorea ematen digunez, finantziazioa bilatzen jarraitu behar dugu, etorkizunean eraikin berria egin ahal izateko.

# ESKOLA



Eskolapioak Indiako iparraldera joango dira, eta eskola irekiko dute bertan, bertako txirotasuna ezin latzagoa delako eta hezkuntza bera behar-beharrezkoa delako.



Es en el año 2004 cuando inaugura una pequeña escuela en Kamda en un terreno cedido. La ubicación obedece a dos criterios: a las relaciones entre los distintos grupos tribales y entre los tolis que no son buenas, hay peleas y disputas, por lo que la escuela se encuentra en una zona aislada que no se integra en ningún Toli y a la necesidad de buscar una zona accesible para todos los estudiantes. De esta manera la escuela se convierte en un lugar de encuentro, no sólo del alumnado, sino también de padres y madres de todos los Tolis.

Viven entorno a diez personas en cada casa, siendo la figura de la persona mayor, del abuelo o la abuela indistintamente, muy venerada, teniendo sus opiniones un gran peso en las decisiones de la familia.

Eskola hazi eta hazi egin da duela hamabi urte inguru ireki zutenetik. 2016-2017ko ikasturte honetan, 640 ikasle baino gehiago daude matrikulatuta, eta 19 irakasle daude. Hazkuntzak baieztatu egin du familiek hezkuntzaren inguruko interesa dutela, etorkizuneko bizimodua hobetzeko tresna da-eta. Era berean, neska-mutilak helburu dituen eskola desberdin eta arduratsuaren inguruko konfiantzaren erakusgarri ere bada.

Eskola oso garrantzitsua da neskentzat, batez ere, inguruko emakumeen eskolaratze-tasak gizonenak baino txikiagoak direlako. Izan ere, munduko beste leku askotan gertatzen den bezala, emakumeen hezkuntza eskubidea da, baina, horrez gain, ongizate-indize handiagoak ere bermatzen ditu familietan. Kamdako Calasanz Ashram Schoolen, nesken eta mutilen agerpena orekatu ahal izan da ikasgeletan.

Sin embargo, el crecimiento no ha ido acompañado de las mejoras y las ampliaciones necesarias. El acceso al agua es hoy más complejo, ya que los pozos existentes en la escuela se secan durante algunos meses al año. El sistema eléctrico no es estable ni suficiente para iluminar todas las aulas apropiadamente. El profesorado necesita mejorar su formación pedagógica y en el futuro será necesario ampliar o construir un nuevo edificio para conseguir reducir el número de estudiantes en cada aula.









